

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016

Joan den uztailaren 19an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak onartu zuen honako erakunde hauen Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena: Arabako Foru Aldundiaren (AFA), bere foru erakunde autonomoen (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Gaztediaren Foru Erakundea eta Arabako Foru Suhiltzaileak) eta bere 9 sozietate publikoen eta hauen foru fundazioena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

Arabako Kultura-ondare Eraikia Kudeatzeko, SAren urteko kontuetan (Arabarri) Vergara Jauregiaren erabilera eskubidea 1,6 milioi euroan erregistratu da eta HKEEK **urteko kontuen gaineko aldeko iritzia** eman badu ere, ez du kopuru horren zuzentasunaren gaineko iritzirik emateko behar hainbateko ebidentziarik eskuratzetik izan.

Finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak ondorioztatu du 2015eko ekitaldi itxierakoaren antzekoa dela eta Diruzaintza Geldikinak gora egin duela (2015ean 112,4 milioi euroa izatetik 2016an 121,6 milioi euroa izatera aldatu da). Zorpetzeak bere horretan eutsi dio 515 milioi euroan.

Gainera, adierazi du Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontuhartzailletza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzaizela eta horiek ez dutela salbuespenik adierazi.

Bai Aldundiak bai erakunde autonomo eta sozietate publikoek **zuzentasunez bete dute** ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz Diputatuen Kontseiluak 557.792 euroren gastuak baliokidetu dituen, Kontuhartzailletzak txosten negatiboa jaulkia zuela. Honez gain, Gizarte Ongizateko Foru Institutuak 3 kontratu gauzatu ditu ezargarriak zitzaizkien prozedura ireki edo publikotasundun negoziatuak saihestuta eta hitzarmen bat eta kontratu bat aldatu ditu, horretarako eskumena duen organoak aldeztatik onartu gabe. Araba Garapen Agentzia, SAUK eta Indesa 2010, SLk zerbitzu bat eta 11 hornidura kontratatu dituzte, hurrenez hurren, publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe. Azkenik, Añanako Gatz Harana Fundazioak esleitutako 2 kontraturen egikaritzak igoera esanguratsua izan du eta ez da EBAOn ez lizitaziorik argitara eman, ezta luzapenak barne hartu ere balio zenbatetsian.